

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

50/2022 Mozioa, maiatzaren 25ekoa, mugikortasun arazoak dituzten pertsoneri zuzendutako laguntzen deialdien ingurukoa eta Bonotaxi moduan ezagutzen dena erabiltzearen gainekoa

Arabako Batzar Nagusiek, 2022ko maiatzaren 25ean egindako osoko bilkuran, mozio hau onetsi zuten:

50/2022 Mozioa, maiatzaren 25ekoa, mugikortasun arazoak dituzten pertsoneri zuzendutako laguntzen deialdien ingurukoa eta Bonotaxi moduan ezagutzen dena erabiltzearen gainekoa.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ahalik eta azkarren ebatzi ditzala mugikortasun arazoak dituzten pertsoneri zuzendutako laguntzen 2022rako deialdian gauzatzeko geratzen diren eskaerak, hain zuzen ere taxi-zerbitzua garraibide alternatibo moduan erabiltzearen gainekoak (Bonotaxi moduan ezagutzen dena).

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote, 2023ko deialdiei begira, familia-unitatearen gaitasun ekonomikoa kalkulatzeko eta haren balorazioa egiteko erreferentziatzat hartzen diren muga ekonomikoen taulak berrikus ditzala, nola desgaitasun-egoera onartua duten pertsoneri zein garapenaren nahasmendua duten zero eta sei urte arteko adingabeei zuzendutako banakako laguntzei dagokienez, hala mugikortasun arazoak dituzten pertsoneri zuzendutako laguntzei dagokienez, taxi-zerbitzua garraibide alternatibo moduan (Bonotaxi lez ezagutzen dena) erabiltzea helburu hartuta.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 25a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA